IRAILAK
8
13
14
15
16
perrotxo
jaiak
07

AGURRA

Badatoz berriro ere Porrontxo Jaiak. 27 urte daramatzagu jai hauek antolatzen eta askotan zaila egiten zaigu sinestea oraindik ere mantentzen direla ikustea. 27 urteotan bizitza goitik behera aldatu da eta horregatik harritzen gara hainbeste Porrontxo Jaiak osotzen dituzten koadrilek bizirik irauteak. Jakin badakigu parte hartzea, koadrilen funtzionamendua ez dela hasi ginenekoa, baina hala ere, une historiko honetan, kontsumismoan oinarrituriko diskurtso kapitalista dugunean gizarte honetako neoliberalismoaren adierazle nabarmena: beti da posible zerbait gehiago EDUKITZEA, produktu HORREK zoriontasuna emango digunaren ilusioa... azken finean, lotura sozialak guztiz lanbrotzen dituen diskurtsoa. Egian aldiz koadrilek bizirik jarraitzen dute, hau da, harremanek, partekatzeak, talde lanak... bizirik jarraitzen dute horrek dakartzan ondorio guztiekin: batetik batasuna, elkarrengana hurbiltzea... baina bestetik baita ere, askoz ere arazo gehiago benetan herriarenak eta herriarentzat diren jai parte hartzaileak antolatzean; eta ez zaigu desberdintasunei, iritzi desberdinei, batzuen eta besteen nahiei eta frustrazioei aurre egin egitea beste biderik geratzen.

Porrontxo Jaiak herriarentzat eginiko jai parte hartzaileak direla eta hala izaten jarraitzeko lanean jarraituko dugula diogunean ez da horrela lan egitea errazago zaigulako, alderantziz. Lan erraz eta komodorako formula asko daude, orain egiten denera egokitu, norbaitek antola dezala ondoren kritikatuko dugu eta; edo bestela antolatuko ditut nik nahi dudan eran eta gustatzen ez zaizkionak ez ditzala goza... Hala ere, guk asanbladak egitearen erabakiarekin jarraitzen dugu koadrila guztiek bozka eta iritzia emateko aukera izan dezaten eta are gehiago, Egia osorako, ez gutxi batzuen nahietara soilik. Jendearen parte hartze aktiboa garrantzitsuena den jaiak, ez begiratzea besterik egin ez daitekeen eskaparatea; haur, gazte eta helduentzako ekintzaz beteriko egunak eta gauak baizik.

Gizartea isolamendurantz doan une historikoa bizitzen ari da non bakoitzak bereari eta bere ongizateari soilik begiratzen dion albokoari jaramonik egin gabe. Oporrak iritsi eta garrantzitsuena "deskonektatzea" bihurtzen da, hau da, zure ingurutik korrika ihes egitea eta gure jendearengandik aldentzea... Ba, Porrontxo Jaiekin korronteen aurka joateko gure ekarpen txikia ematen segi nahi dugu, kaleari, jendearen arteko harremanei eta denbora libre eta aisiaz gure inguruan gozatzeari garrantzia ematen jarraitu; ez dugulako uste Karibear uharte batean zoriontasun handiagorik topatuko dugunik gure lagunekin izandako hizketaldi batek baino edo birlera begiak itxita jolasten baino.

Hori dela eta, instituzioetatik, bizilagunen ongizatea aitzakiatzat jarrita aisialdia eta gozamena egunetik egunera gehiago kontrolatu eta uniformizatu nahi duten arren, guk desberdintasunerako eskubidea aldarrikatzen segiko dugu, parte hartzerako eskubidea, sormenerako eskubidea, nahiz eta badakigun ez gaudela modan.

ONDO PASA ETA GORA PORRONTXO JAIAK !

LARUNBATA, 8

aurre porrontxoak beroketak-estiramenduak

11:00 Egiatik kalejira Porrontxo eta Porrontxarekin, hankapalo, malabarista, buruhaundi eta AMAIA, HODEI, ZURIÑE ETA HAIZEA trikitilariekin.
12:00 Sagardo dastatzea Ez txatxutik baitxotxetik **eta pintxoak Plaza Haundin.**
14:00 Bazkaria Plaza Haundin, eta gero... jokoak.

IGANDEA, 9

10:30 X. kris, kras **KROS txapelketa.**

OSTEGUNA, 13

haurren eguna

17:00 Buruhaundi eta erraldoiak JATORRENAK txarangarekin.
17:30 Haur jeitsiera JATORRENAK txarangarekin Karmengo ama kaletik.
18:00 Haurren pilota finalak.
18:30 Haurrentzat aurten bai **PIRRITX eta PORROTX pailazoak plaza Haundin.**
20:00 Koadilen jeitsiera Porrontxo eta Porrontxarekin koadrilek mozorrotuta eta karrotxoak apainduta gurditunning **LAGUNAK txarangarekin.**
22:00 Dantzaldia TRAKETS taldearekin Plaza Haundin. Trakets taldearekin dantzaldi zuzena.
23:00 Tejeriako txosna guneko taulatuan KIDAN MAGOA. Bai majoa kidan magoa
00:00 BALDARRAK txaranga.
01:00 JOKOAK: zaldiak eta zaldunak eta azeriaren jokoa.

OSTIRALA, 14

gazte eguna ala gazta eguna

12:00 Haurrentzat, KKI eta MOKO Pailazoak SUSTRAI BIZIA ekitaldiarekin Plaza

Berrin. Donostia Kulturak antolatuta.
Hamabitan: 11takoa AMAIA, HODEI, ZURIÑE, HAIZEA eta nekaneren **trikitixarekin.**
14:00 Bazkaria.
15:30 Aldakonea zaharren egoitzan AMAIA, HODEI, ZURIÑE, HAIZEA, nekane eta ainara **trikitilariak.** Gure atsuak bertan izango dira.
17:00 12-17 urtekoentzat jokoak Maria Reina ikastetxean Gazte leku antolatuta. meza santua aukeran
17:01 BOLINGA SUBSISTENN taldearen emanaldia auzoan zehar.
17:30 Buru (oso) **haundiak eta erraldoiak INCANSABLES txarangarekin.**
18:30 Haurrentzako EIDABE taldearen KANPANOLUE emanaldia dantza eta jolasekin, Plaza Berrin. Donostia kulturak antolatuta.
20:00 HAUR KARROTXO GINKANA. Guraso eta zenbait haurrei oharra: GINKAMA ez ginkasa.
21:00 KONTZERTUA Tejeriako txosna gunean: XIKINKEI, OSTIKOAPOTROTAN, UK BILL, HUTMENSAKE.
21:30 Haurrentzako Zezensustoa Tejerian.
22:30 Dantzaldia HAITZAMA taldearekin Plaza Haundin. Suelttuan eta alagarrau.
00:00 TXORTAINS taldearen emanaldia kalean zehar ala txortan taldeka?
01:00 JOKOAK: Brilea eta alfonbra jokoak.
01:01 INCANSABLES txaranga.
04:00 Txokolatada. edatekoa eh gazte.

LARUNBATA, 15
preso eta iheslarien eguna

08:00 LAGUNAK txaranga.
10:00 Gladysenean haurrentzako jokoak AMALUR taldearekin Donostia Kulturak antolatuta.
11:00 Pintxo erakusketa, auzoko tabernariak eta koadrilei esker amaia, hodei, zuriñe, haizea, nekane eta itziarren **trikitixaz alaituta.**

12:00 JOTAK VOCES NAVARRAS taldearekin Plaza Berrrin. Telonero bezala Sanz, Delburgo eta Barcina.
16:00 ESKUBALOI txapelketa Polikiroldegian. EGIA ESKUBALOI TALDEAk antolatuta.
16:30 Pala Finalak frontoian.
16:31 Buruhaundiak eta Erraldoiak egiatik ibiliko dira JATORRENAK txarangarekin.
17:00 12- 17 urtekoentzat: Graffiti tailerra eta break dance erakustaldia URBAN 13ri esker Plaza Haundin. Eta nagusientzako noiz? no te jode hi!

17:30 Haurrentzako tailerrak Plaza Berrin.
18:00 Eskulanen azoka eta pintxoak amaia, hodei, zuriñe, haizea, nekane alazne eta itziarren **trikitixaz alaituta.**
19:00 KUBAKO musikaren emanaldia Plaza Haundin. Eta Chegi aurrera.
20:00 TREBESKA DANTZA TALDEAren erakustaldia Hirutxulo Plazan.
20:30 Haurrentzako Zezensustoa Plaza Haunditik Plaza Berrira.
21:00 Koadrilen Afaria Kafea eta koparekin Tejeria kalean. Eta erretzerik ba al dago?
22:30 LAGINAK txaranga.
23:00 IZOTZ taldearekin dantzaldia Plaza Haundin. Berotu gorputzak Izotzekin.
00:30 Preso eta iheslarien aldeko KALEJIRA Porrontxa, Porrontxa, zanpanzarreekin eta LAGUNAK Txarangarekin. Ondoren Aurresku herrikoia P. Haundin.
01:00 TAUPADAren batukada
01:01 BALDARRAK Txaranga.
01:30 Tejeriako Txosnen gunean DJ sesioa, BASANABASA Djarekin eta REVOLUTIONARY BROTHERS.

IGANDEA,16

Euskal Jaia

07:00 Oilaskoak gosaltzeko. ihes ez badute egin behintzat.

08:30 JATORRENAK txaranga.
11:00 Esku pilota finalak, amaia, hodei, zuriñe, haizea, nekane alazne Irati eta itziarren **trikitixaz alaituta.**



BERTSO-PILOTA XABIER SILVEIRA eta JOKIN URANGA bertsolariekin. Eta anjelusa Nafarroako gotzaiarekin, ar!
12:30 Sagardo dastatzea Plaza Haundin.
14:30 Bazkari Herrikoia Plaza Gorrin, Ur-zaleak, Donosti Gain eta Arrano elkarteek prestatutako menuarekin.
17:00 Herri Kirol erakustaldia ERNESTO EPELDE "BIHURRI" eta bere taldearekin eta Herri kirolak koadrilen parte artzearekin.
18:00 Enrrike ta Benitoren trikitixa.
19:00 Sardina jatea Plaza Haundin.
19:01 LARRAIN Dantza Plaza Haundin.
19:03 ER(R)OMERIA KUPELA taldearekin. Kabituko al gara?
20:00 INCANSABLES txaranga. Dagoeneko nekatutak izango dira ba?
21:00 Tente dirauten **Koadrilen kalejira Egian zehar.**
22:00 Azken trakaren erreketa.
23:59 GUI AR DE GUOL edo holako zerbait.

EZ APARKATU ~ NO APARCAR

OHARRA: Auzokide kotxedunei laguntza eskatzen zaizue **TEJERIA kaleko goiko aldea** ***ostiral arratsaldetik larunbata gaua arte*** (Koadrilen afaria dela eta) ez aparkatzek. Mila esker.

NOTA: Se solicita la colaboración de l@s vecin@s propietari@s de los coches para que en la **parte al ta de la calle TEJERIA** no aparquen desde ***el viernes a la tarde hasta el sábado a la noche*** (por la cena de cuadrillas).Muchas gracias.

egia

irailak
8, 13, 14, 15, 16

porrontxo jaiak
2007